Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko azaroaren 15a, asteazkena — 220 — Miércoles, a 15 de noviembre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## EIBARKO UDALA

*Adineko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua sortzea eta haren erregelamendua onestea.*

Udal Batzarrak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, honako hau onartu zuen:

AKORDIOA

*Aurrena.* Adineko pertsonei eguneko arreta emateko zerbitzu publikoa sortzea. Zerbitzu horren helburu nagusia da erabiltzaileari etxean egoten laguntzea eta esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua eskaintzea.

*Bigarrena.* Zerbitzu horren finantzazioa toki-entitatearen baliabide propioekin egitea, bai eta diru-sarrerak izateko bide alternatiboak aztertzea, zerbitzuaren jasangarritasuna bermatzeko eta udalaren finantza-oreka mantentzeko.

*Hirugarrena.* Zerbitzua zeharkako kudeaketa bidez egitea, zerbitzuen kontratu bat eginda.

*Laugarrena*. Hasiera batean onestea adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua arautzen duen Erregelamendua.

*Bosgarrena.* Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, horretarako Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udalaren iragarki-taulan iragarkiak kaleratuz, interesdunek erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izan ditzaten. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasierako erabakia behin betikotzat joko da besterik gabe.

*Seigarrena*. Alkate-udalburuari baimena ematea agiriak izenpetzeko eta/edo zerbitzu hori abian jartzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Eibar, 2023ko urriaren 31.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(8280)

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Creación del servicio de atención diurna para personas mayores y aprobación de su reglamento regulador.*

El Pleno Municipal, en sesión de 30 de octubre de 2023, adoptó el siguiente

ACUERDO

*Primero.* Crear el servicio público de atención diurna a personas mayores cuyo objetivo principal ayudar a la persona usuaria a permanecer en su domicilio, ofreciéndole un servicio de intervención socioeducativa y psicosocial.

*Segundo.* La financiación de dicho servicio con recursos propios de la entidad local, así como explorar vías alternativas de ingresos, que garanticen la sostenibilidad del servicio y de la estabilidad financiera del municipio.

*Tercero.* La prestación del servicio se gestione mediante el sistema de gestión indirecta a través de un contrato de servicios.

*Cuarto.* Aprobar inicialmente el Reglamento regulador del servicio de atención diurna a personas mayores.

*Quinto.* Someter el acuerdo que se adopte a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de edictos de este Ayuntamiento para que las personas interesadas puedan presentar las reclamaciones y/o sugerencias que consideren oportunas. En caso de no presentarse reclamaciones ni sugerencias, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

*Sexto.* Autorizar al Sr. Alcalde-Presidente para la suscripción de los documentos y/o adopción de acuerdos necesarios para la puesta en marcha de dicho servicio.

Eibar, a 31 de octubre de 2023.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(8280)

EK\CV GAO-I-2023-08280